



JAURLARITZAREN KONTSEILUAREN ERABAKI-PROPOSAMENA, ZERBITZU-KONTRATUAK EGITEKO JARDUNBIDE EGOKIEI BURUZKO JARRAIBIDEAK ONARTZEN DITUENA.

Beren eginkizunak betez, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren botere esleitzaeleek zerbitzu-kontratuak egiten dituzte, interes publikoko premiei erantzuteko. Nahiz eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak, 301. artikuluan, zerbitzu-kontratuen xedeari buruz ezartzen duen muga bakarra botere publikoen berezko agintaritza erabiltzea dakarten zerbitzuak kontratatzeke debekua den, interes publikoko premiak betetzeko mekanismo gisa zerbitzu-kontratu publikoak egiteak hainbat eragozpen ditu, eta eragozpen horiek saihesteko neurriak hartu behar dira.

Sektore publikoko zerbitzu-kontratuak egitean kontratistek, hainbatetan, halako kontratuak gauzatzeko hartutako langileen zereginak zehatz-mehatz mugatu ez izanak –eta zeregin horiek sektore publikoko erakunde kontratatzailearen berezko langileei dagozkien zereginekin nahasteak– kontratistaren mendeko langileak kontratua egin duen sektore publikoko erakundearen langile lan-kontratudun bihurtzea eragin dute, langileen legez kanpoko lagapen-egoerak deklaritzen dituzten epai judizial ugari bete ondoren.

Ebazpen judizial horiek Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoari eragin diezazkioketen kalteak saihesteko, duela urte batzuk hainbat arau-neurri jarri ziren abian:

- 2006ko abenduaren 18ko Agindua, Eusko Jaurlaritzaren lehendakariordearena; horren bitartez, Eusko Jaurlaritzaren egoitza diren eraikinetan sartzeko eta kanpoko langileei espazioak eta beste baliabide batzuk esleitzeko araei eta prozedurei buruzko Jarraibidea eman zen.

- 2007ko azaroaren 20ko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia, zerbitzuen kanpoko kontratazioari dagokionez, eta, hura betez, 2007ko abenduaren 17ko Agindua, Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuarena.
- 2010eko otsailaren 3ko Agindua, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazioeko Mahai Orokorraren Erabakia argitaratzea ezartzen duena, 2010. eta 2011. urteetarako soldata-igoerei eta enplegu publikoarekin lotutako neurriei buruzkoa.
- 2010eko urriaren 19ko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia, zerbitzuak kanporatzeko irizpideei buruzkoa, eta Erabaki hori aplikatuz, 2011ko urriaren 17ko Agindua, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuarena, langileen eta zerbitzuen alorrean Ikuskaritza Nagusiak Erabaki horretan aurreikusitako jardunak gauzatzeko.

Gaur egun indarrean dagoen eta helburu hori partzialki kontuan hartzen duen 2010eko urriaren 19ko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakiak kontrol-sistema bat ezarri du, eta horrek eragin du kontratuak sustatzen dituzten organoen nahiz Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren lan-karga nabarmen igotzea; baina horrek ez du esan nahi egindako kontratu kopurua nabarmen jaitsi denik, kontratu horiei eusten dieten aurrekontu-kredituek jasandako pixkanakako murrizketatik ondoriozta daitekeen murrizketatik haratago.

Testuinguru horretan, kontratuak egiten dituzten organoek gogoeta-prozesu bat gauzatu dute, eta gogoeta horretatik ondorioztatu dute egungo estrategia berraztertu behar dela eta beste ildo batean egin behar dela aurrera, kontrolaren erantzukizuna kontratazioaren alorrean eskumena duten sektore publikoko antolamendu-egiturek izanik, batez ere zerbitzu-zuzendaritzek.

Zeregin horri ekiteko erabil daitezkeen tresnei dagokienez, aipatutako prozesuan adostasun handiena lortu duen aukera ondoren aipatuko diren helburuak lortzeari begira neurri zehatzak biltzen dituzten jarraibideak onartzea izan da, eta honako hauek dira helburu horiek:

- Premiei erantzuteko modua planifikatzea eta baliabide propioak antolatzea; baliabide horiek arrazoizko moduan erabiltzea, eta zerbitzu-kontratuak beste erremediorik ez dagoenean baino ez egitea.
- Argi eta garbi bereiztea bertako langileek bete behar dituzten zerbitzuak eta zerbitzu-kontratuak eginez bete daitezkeenak.
- Kontratututako zerbitzuak behar bezala gauzatuko direla bermatzea, argi utzita sektore publikoa osatzen duten erakundeen kudeatzaileen eta kontratistaren langileen arteko harremana.
- Kontratistaren langileek kontratua egin duen botere esleipendunarekin nolabaiteko lan-harremana dutela onartzera eraman dezaketen ekintzak saihestea.
- Sektore publikoko erakunde guztien maila hierarkiko guztiak inplikatzeko etengabeko jarduerak egin ditzaten langileen legez kanpoko lagapenari buruzko epaiak emateko azken urte hauetan oinarri gisa erabili diren jardueren arriskuak identifikatzeko, ebaluatzeko eta horien jarraipena egiteko.

Ikuspegi horrekin, erabaki honek bi helburu ditu.

Alde batetik, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra eta efizientea bermatuko duten arau batzuk ezarri nahi ditu, baliabide propioen plangintza egokian eta lehentasunezko erabileran oinarrituak; beste alde batetik, ezinbestean, bereizketa argiagoa ezarri nahi du, kontratatu daitezkeen zerbitzuen eta, sektore publikoak bereak dituen funtzio-eremuei dagozkien zereginak biltzen dituztelako, kontratatu ezin diren zerbitzuen artean.

Eta bestetik, asmoa da botere esleipendunen premia iraunkorrei langile propioek erantzutea, eta ez erabiltzea horretarako zerbitzu-kontratuak.

Gogoeta-prozesuan lortutako adostasun-maila kontuan hartuta, zerbitzu-kontratuen erabileran eta kudeaketan jardunbide egokiak ezartzen dituzten jarraibideen bitartez ekimen hau gauzatzeko egokitasunari buruz, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak eta Ogasun eta Finantzetako sailburuak proposatuta, eta Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen txostena aldekoa izanik, Jaurlaritzaren Kontseiluak, eztabaidatu ostean, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

LEHENA.- Erabaki honetako zerbitzu-kontratuak egiteko jardunbide egokiei buruzko Jarraibideak eta haiekin batera doazen eranskinak onartzea.

BIGARRENA.- Gaur egun zerbitzuak kontratatze indarrean dauden berariazko klausula administratiboen agirien eredu aldaketa onartzea, Jarraibideen II. Eranskinaren arabera.

HIRUGARRENA.- Funtzio Publikoko Zuzendaritzak eta Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak argituko dituzte onartutako Jarraibideen interpretazioari eta aplikazioari buruzko zalantzak, Zuzendaritza horietako bakoitzak berari dagozkion eskumenen eremuan.

LAUGARRENA.- Erabaki honek eraginik gabe uzten du 2010eko urriaren 19ko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia, zerbitzuak kanporatzeko irizpideei buruzkoa, eta 2011ko urriaren 17ko Agindua, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuarena,

langileen eta zerbitzuen alorrean Ikuskaritza Nagusiak Erabaki horretan aurreikusitako jardunak gauzatzekoa.

Jaurlaritzaren Kontseiluan aurkezteko.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 29an.

Herri Administrazio eta Justiziako Sailburua

JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

Ogasun eta Finantzetako Sailburua,

RICARDO GATZAGAETXEARRIA BASTIDA.